



BEKA DEIALDIA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2021/2022 ikasturterako beka deialdia jarri du abian. Eskaerak on-line, internet bidez, bideratzeko aukera eskainiko du **irailaren 30 arte**.

deialdia
kontsultatu 

2020/21EAN BEKA JASO ZUTENENTZAKO ARGIBIDEAK

2020-2021 ikasturtean beka jaso zuten eta matrikula kudeatzeko aplikazioan jasota dauden ikasketak egiten ari diren ikasleei Jaurlaritzak beteta emango die eskaera-formularioa.

jasotako formularioan ageri den egiazta-pen-kodearen bidez.

Formulario hori telematikoki eskuratu ahal izango da, helbide elektronikoa honetan: www.euskadi.eus/unibertsitateazkanpoko-bekak. Halaber, paperean eskuratu ahal izango da Ikastolan.

b) Formularioa paperean sinatuta, eta honako toki hauetakoren batean aurkeztuta:

Formularioan ageri diren datuak zuzenak direla egiaztatu ostean, edota egin beharreko aldaketak egin ondoren, eskaera aurkeztuko da:

– Beka-eskaeraren xede diren ikasketak egiteko ikastetxeetan.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua zehaztutako tokietan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan adierazitakoetan.

a) Telematikoki, aplikazioan eskaera-formularioa elektronikoki sinatuta edota

beka sinatu 

ESKAERA BERRIAK NOLA BIDERATU

*Ikastolako idazkaritzan norberak on-line bideratu baina elektronikoki sinatu ez diren eskaerak sinatzeko aukera emango dugu, bai eta eskaera osoa ere Ikastolatik bideratzeko. Horretarako **aurretiko hitzordua** eskatu beharko da **94 672 67 37** telefonoan. Harrera ordutegia irailaren 17 arte 09:00etatik 14:30era izango da eta 20tik aurrera 09:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 16:30era.*

aurkeztu beharko dira. Horrez gain, Arabatik kanpo tributatuz gero, 2020 urteko errenta aitopenen kopia ere aurkeztu beharko da. Bestetik, egoeraren arabera, dokumentu osagarriak eskatuko dira: banaketa edo dibortzio kasuetan sententzia, hitzarmen erregulatzailea, pentsioen ziurtagiriak, ikaslearen errolda agiria... ezgaitasunen agiriak, e.a.

Eskaera guztietan eskaera egiten duen pertsonaren NANaren (aita, ama, tutorea...) eta familia liburuaren kopiak

Familiak COVID-19ren ondorioz ABEErik edo bestelako egoerarik jasan izan badu 2021ean (langabezia, autonomoen jardura etetea...), egoera horren egiaztatzea aurkeztu beharko da.

LAGUNTZAK ETAPAKA

LAUDIO TXIKI

Haur Hezkuntza 1. zikloko ikasleek laguntza mota ezberdina eskura dezakete matrikulatuta dauden mailaren arabera.

0 eta 1 urteko hurrek, 2020an eta 2021ean jaiotakoek, kuotarako laguntza eskura dezakete, hilean gehienez 90 eurokoa.

2 urteko hurrek, 2019an jaiotakoek, ikasketak ordaintzeko laguntza, 200€, eta jantokirako laguntza, gehienez 818,80€, eskura dezakete.

Ziklo honetarako HH-LH-DBHrako **1. errenta muga** egiaztatu behar da kasu guztietan.

HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOA

3, 4 eta 5 urteko ikasleek, 2018, 2017 edo 2016an jaiotakoek, **2. errenta muga** egiaztatu beharko dute. Ziklo honetan **ikasmaterialerako** laguntza,

78€koa da eta **jantokiko** laguntza, gehienez 818,80€koa.

LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH

LH eta DBH etapatan **4. errenta muga** egiaztatu behar da **ikasmaterialerako** laguntza eskuratzeko, 117€ LHn eta 159€ DBHn eta **2. errenta muga jantokirako**, gehienez 818,80€.

BATXILERGOA

Oinarrizko bekarako (300€) eta **Aprobetxamendu akademikoari lotuta osagaiarako** (50 eta 125€ artekoa) **4. errenta muga** egiaztatu behar da.

Familia-errentari lotutako osagaian, 1.700€, **1. errenta muga** egiaztatu behar da.

Bizilekuari lotutako osagaia (1.600€) eta **zenbateko osagarrirako** (60€) **3. errenta muga** egiaztatu behar da.

BALDINTZA EKONOMIKOAK

	1. errenta muga	2. errenta muga	3. errenta muga	4. errenta muga
familia kide kopurua				
1	8.871	11.937	13.236	14.826
2	13.306	19.444	22.594	25.308
3	17.742	25.534	30.668	34.352
4	22.177	30.287	36.421	40.796
5	25.726	34.370	40.708	45.598
6	29.274	38.313	43.945	49.224
7	32.822	42.041	47.146	52.810

familia errentaren kalkulua:

ZERGA OINARRI OROKORRA +AURREZKIAREN ZERGA OINARRIA -KUOTA LIKIDOA

beka
eskatu

